

Kontu kontari →



JOANES ETXEBARRIA

Andoni Guïresse Duperou ◀ Margolaria

Kanboko Xalbador kolegioan erakutsi ditu Guïresse Duperouk bere lan batzuk duela gutxi arte, artista ezagunekin; ohore bat zela dio, baina beldurrik gabe parte hartu duela. Miarrizten ere hala egingen du, Grand Palais ezagunean. Arte irakaslea da ikastoletan.

«Artea ez da bakarrik inspirazio kontua, eguneroko lana da»

Joanes Etxebarria Ozaze

Andoni Guïresse Duperou (Donapaleu, 1985) Zuberoan sortu zen, Lapurdin handitu, Roazhonen (Rennes, Britainia) Arte Ederrak ikasi, eta Euskal Herrira itzuli zen. Bere webgunean (www.andoniart.com) ikusgai ditu lanak oraindik, eta laster Miarrizten ere bai.

Zer egin nahi du artista gazte batek mundu honetan?

Uste dut kanbiatu behar direla sinemen orokorrak. Gaurko egunean artista izatea da, ene ikuspegitik, serio eta langile izatea. Ez da bakarrik inspirazio kontua, eguneroko lana da, pentsaketa anitz, metodo batekin eta prestakuntza lana praktikoki. Ahal banu, horren garapenean parte hartzen, erakutsi nahi nuke artistaren lana lan konkretu bat beza-

la, eta egituratua. Lehenik behar da artean sakondu eta garatu, eta gero jakin izan artearen merkaturuan kokatzea, profesionalismoari buruz.

Arteaz bizi nahi zenuke. Roazhonen Arte Ederrak ikasi eta gero, zer panorama ikusten duzu?

Baionako Arte Eskolan sartu nintzen kuriositatez, eta hor atzeman nuen denbora eta espazio bat non banuen askatasun zerbait. Eta uste dut askatasuna xerxer katzea dela ene funtsezko motorea. Roazhongo Arte Eskola izan da amiñi bat gaitz enetako, aipatu gabe frantses artista gisa formatzea... Ni joan nintzen emozioen xerka artearen bidez, eta haiek alderantziz, lehentasuna gogotari eta kontzeptuari ematen zieten; ez nuen ene lekua atzematen gauza horietan. Distantziarekin oihartzten naiz biak behar direla,

gogoeta dela artearen eskeletoa, eta adierazpena ezinbestekoa dela zerbait jendearekin partekatzeke. Ideian bakarrik egoten dena hotz gelditzen da.

Arteaz bizitzea nola ikusten duzu?

Arteaz bizitzearen ideia aski fite ukan nuen, Roazhonen nintzelarik jadanik banuen, jakin gabe horren errealtate zer zen. Lagun batek erakutsi zidan arteaz bizitzeko badela eremu bat, kodekin eta legeekin. Norberaren unibertso artistikoa sakontzeak laguntzen du berezitasunaren azkartzen, eta horrek ematen dio balioa mundu profesionalean ere. **Erratan da artea unibertsa izaten dela. Aipatu duzu Roazhongo formateatzea... zerbait aldatzen du artista euskalduna izateak?**

Bai. Nahiz eta —ene lanean ere— baden xedea gauzak partekatzea ahal bezainbeste jendekin, uni-

bertsala lanjerosa atzematen dut, bereziki mundializazio garai hauetan. Euskaldun gisa baditut ene erroak, ene kultura, ene historia; nahiz eta irekidura bati buruz joaten naizen eta interesaturik izan besteez, bistan da badudala ene berezitasuna eta ene nortasuna euskaldun gisa. Ez da baitezpada aisa beste kultura ezberdinetatik konprenitua izatea. Beharrik gizakiek badugula gaitasuna horren gainetik izateko ere bai, partekatzeke gaitasuna ukaitea. **Ikastoletan arte irakasle gisa arizara lanean. Arte Ederrak oren gutxi dira kolegioan, eta usu ikasleengan ez dira serio hartzuak...**

Uste dut badela lan izugarri interesgarria egiteko, transmititzeko artea izaten ahal dela komunikazio tresna bat eta nortasunaren garatzeko eta eraikitzeko tresna bat; justuki ikasleak egiturake-

tan eta eraikuntzan baitira. Bilkara interesgarria da lortzen dudalarik garatzea kuriositate hori beste kulturei buruz, beste artistei buruz... Euskaldunengan oinarrituz bistan dena: Txillida, Oteiza, Sistiaga, Basterretxea, Zigor, Gonzalo Etxebarria... badugu potentzial handia Euskal Herrian. Beste mezu bat ere pasa nahi diet: adierazpen artistikoaz gain, herritar gisa Euskal Herrian aktibo izan daitezkeela, parte hartuz.

Esperientzia kolektibo bat ere bizi izan duzu Point8 galerian, Baionan. Nola joan zen?

Aski gutxi egon naiz galeria horretan. Ene interesa bikoitza zen orduan: galeria bezala, eta elkarre bezala, ene lana komunikatzea. Hasteko lan horretan herritar eta artista bezala, Baiona Ttipian gainera, zentzu batekin zen, euskaldun eta beste. Beste aukera zen tailerra eta lan espazioa ukaitea. Izugarri esperientzia ona izan da, baina egia da ez nuela gehiago ene lekua atzematen han; tailerra ere ez zen gehiago egokia ene beharrentzat.

Point8 edo beste, baina kolektiboa sostengu ona izan daiteke artista gazte batentzat, ezta?

Bada bakarkakoaren interesa, pertsonalitate bat baikara bakoitza, baina talde baten partaide izanez, herritar izatearen zentzuan. Eskala handiagoan arte munduan, talde batean parte hartzea ene pertsonalitatean ez dut baitezpada beharrezkoa sentitzen. Baina laket naiz, aberasgarri zait interdiziplinitatea, zentzu komunean joaten delarik, bistan dena. Ez dut baitezpada taldearen beharra, eta ber denboran horren behar handia badut.

New Yorkeko pianista gazte bat ezagutu zenuen. Iduriz inportantea izan da zuretzat.

Bai, izugarri. Pianista horren ezagutzeak sorrarazi dit serie inportante bat, *Lurraldeak* izenekoa, Miroren unibertso aski hurbil. Ez nuen hezkuntza sobera musika klasikoan; hark, gainera, ukitu barroko bat ematen dio, eta horrek ere maitarazi dit haren musika. Egia da orain anitz lan egiten dudala musikarekin, estilo horrek sorkuntzari zabaltzen nauelako manera zabalean. Aipatzen dudalarik trukaketa, interdiziplina, izugarri interesgarria da, sorkuntzarako bulkada ematen duelako. **Xalbador kolegioan herriki, eta ondoko erakusketan Miarrizten egingen duzu; zer espero duzu erakusketan batetik?**

Artea sakontzea eta garatzea. Ukanen dut beste erakusketak bat Angelun, eta beste bat Miarrizten 2014an. Pentsatzen dut perspektibak zabaltzen direla. Baina dimentsio artistikoa da inportanteena, horrek du ematen balioa.